


# Herri Aldizkaria **OTOMOTZ**



Asier Aranburu.  
"Egunean ordu  
bete entrenatzen  
dut"

ESKALIZATEAN  
**ZINTZU  
ZINTZU**  
ELIARTEA


●  
Jose Luis  
Ugartek bi  
herrietako  
toponimoak  
jaso ditu

●  
30 lagun  
biltzen dira  
Urola Garaiko  
**AGUIFES**  
taldean

●  
Zer iritzi dugu  
kinto eskean  
ibiltzeari  
buruz?

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel: 725775 **Koordinatzailea:** Amaia Pildain.  
**Erredakzio kontseilua:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Mari Paz Etxeberria, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Anakris Zabala. **Kazetariak:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Mari Paz Etxeberria, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Andoni Salamero, Marian Toledo, Anakris Zabala, Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Jon Balenziaga eta Idoia Luzuriaga.  
**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Maketazioa:** Amaia Pildain. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Kolaboratzaileak:** Bertso eskola, Gorka Azkarate.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## AURKIBIDEA

- 3 **Bota puntua**  
Soldadutza  
Iritziz iritzi  
Langai
- 4-5 **Labur esanda**
- 6 **Amaia Artolazabal eta Lierni Asurabarrena Urruzunon saridun**
- 7-9 **Jose Luis Ugarte**  
Urretxu eta Zumarragako 2.693 toponimia jaso ditu
- 10-11 **Urola Garaiko AGUIFES elkartea**
- 12 **Zenbat buru hainbat aburu**  
Zer iritzi duzu kinto eskean ibiltzeari buruz?
- Zertan ari da**  
Nacho Mediavilla
- 
- 13 **Izerdi patsetan**  
Behobia-Donostian parte hartutako herritarrak
- 14 **Ba al zenekien?**  
Iparragirre sarien ingurukoak
- 15 **Zorionak**

## TELEFONOAK

### UDALAK:

Urretxuko udala:.....720151

Udaltzaingoa:.....722597

Zumarragako udala:.....723011

Udaltzaingoa:.....721562

### LARRIALDIAK:

Anbulategia:.....724900

Ospitalea:.....723913

Gurutze Gorria:.....725364

Ertzaintza:.....724050

### KULTURA:

Kultur Etxea:.....724170

### KIROLAK:

Aldiri polikiroldegia:....720780

Ispila polikiroldegia:....724961

Beloki pilotalekua:.....720293

Ederrena pilotalekua:..724662

### HEZKUNTZA:

Gainzuri ikastetxea:....721214

Garaialde lizeoa:.....722112

Ikastola:.....720026

Institutua:.....721413

Lanbide eskola:.....725477

Legazpi eskolak:.....721514

Zelai Aristi ikastetxea:...721354

Musika eskola:.....725226

### EUSKARA:

Bisasti euskaltegia:.....720458

Udal euskaltegia:.....723310

### KOMUNIKABIDEAK:

Eusko Trenbideak:.....150746

PESA:.....761646


Taxiak:.....720307

RENFE:.....721515

*Euskaltz.*  
**Solda-  
dutza**

*Urte beteko amesgaiztoa  
bizi osorako kezka  
batzuek gogoz joaten dira  
baina gehienak iheska  
kontu eskean azkenaldian  
hasiak dira galdezka  
nahiz garai hontan burutu ohi dan  
soldaduskako zozketa  
Ez esatea izan behar da  
gazteon aukeraketa*

*Konstituzio gaizki eginak  
ekartzen duen kaltea  
denboragaltze izugarria  
hori neurtzen hastea  
halere askoz hobea degu  
gauzak argi esatea  
bizi gogoa daukanarentzat  
ez al da gauza tristea  
bizitza horren motz izanda  
urte bat bertan uztea*



**GORKA AZKARATE**

*Flay*

**Zer da  
LANGAI?**



**LANGAI** Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak sortutako zerbitzu publikoa da, lana eskaintzen duten enpresen eta lana bilatzen duten edo aldatu nahi duten lagunen eskura jarrita. Zerbitzua doakoa da eta hainbat Zentro Lankidetan (Erakunde, Enpresa edota Lanbide Ikastetxeetan) kokatua dago. Gure kasuan **Urola Garaiko Lanbide Eskolan** ezarrita dago, eta ez Urola Garaia Garapenerako Agentzian (UGGASA), hasiera batean iragarri zen bezala. Zentro Lankidea ikastetxea baldin bada, bertako ikasleak zuzenean sartzen dira **LANGAI**-ra ikasketak amaitutakoan, bestela, lana bilatzen duen edonork honako prozesua egin beharko du **LANGAI**-ra sartzeko:

- Zentro lankide batera jo eta izen-abizenak, bizitokia eta egindako ikasketak adierazi beharko ditu. Horren arabera Zentro batera edo bestera bidaliko zaio elkarriketa egitera, Zentro Lankide bakoitza arlo batzuetan espezializatuta baitago. Gure Eskolan Mekanika, Elektronika, Administrazioa eta Informatika arloetako lan-eskatzailleak jasoko ditugu. Lan-eskatzailleak hainbat Zentro (hurbilenak) eta hitzordu izango ditu aukeran.

- Lan eskatzailleak galdetegi edo curriculum bat bete beharko du bere datu pertsonalak, akademikoak, profesionalak,

izandako esperientzia, lehentasunezko enpleguak... eta abar azalduz. Hitzorduan Zentroko langile batek curriculumean oinarritutako elkarriketa bat egingo dio eta ondoren bere curriculum osoa sistema informatikoan sartuko da.

Honaino lan eskatzaillearen bidea. Gero, enpresak edo erakunde batek lan bat eskaintzen duenean lanpostuaren ezugarriak eta betekizunak sartu beharko ditu sistema informatikoan eta, gehienez, eskaintzen den lanposturako egokienak diren 10 lagun aukeratu ditu sistema informatikoak. Lagun bakoitza lanpostua onartzeko prest dagoen ala ez egiaztatu ondoren, enpresak prest daudenen zerrenda jasoko du haien artean aukera dezan.

Esan beharra dago **LANGAI** zerbitzuak kritika batzuk ere jaso dituela, enplegurik ezaren arazoa benetan konponduko ez duelako, hegoaldeko euskal herrialde guztiak hartzen ez dituelako (Euskal Autonomi erkidegokoak bakarrik), zenbait galderatan sexista delako edota enpresa-ikuspuntua antzematen delako...

Dena dela, argibide gehiago nahi izanez gero, deitu Lanbide Eskolako telefonora: **72 54 77**

**Pello Biain**

**LANGAIko koordinatzailea  
Urola Garaiko Lanbide Eskolan**

**Aldizkari honek Urretxu eta Zumarragako udalen laguntza eta Foru Aldundiko laguntza jaso du**



**URRETXUKO  
UDALA**




**ZUMARRAGAKO  
UDALA**



**Gipuzkoako Foru  
Aldundia**

Urtarte




**San Martin egunean giro ona**

Odolkia jateko ohiturari herritarrek ederki asko eutsi genion San Martin egunean. Goizean, urtero bezalaxe San Martin de Tours parrokian meza nagusia izan zen, iluntzean, Urretxuko musika bandak kaleak girotu zituen eta San Martin eta Aparizio arzoetan odolki dastaketa izan zen.



**Jose Julian Irizar Iparragirre kaleko adokinatua inaguratzen**

Azarocaren 4an, inauguratu zuen Jose Julian Irizarrek, garrario diputatuak, Iparragirre kale berriua. Berritze lanak diputazioak ordaindu ditu eta Irizarrek azaldu zuenez, Beasain-Durango autoboiaren lanak, Eitzaraino helduko 1997urtean eta Aparizio arzoetik Antzuolarako lanak ere, datorren urtean hasiko omen dira.



**Premiazko hitzak garai honetarako**

Azarocan, **Juan Luis Zabala** Egunkariako kazetaria eta idazlea, **Joserra Garzia**, Egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea dena, eta **Pedro Manterola** pintorea izan ziren Urretxu eta Zumarragan, **Hits & Fits bandak** gonbidatuta. **Juan Luis Zabala** azkoitiarrak, *kaka esplikatzen* liburuaren egileak, **Gure artean** liburu berriaren aurkezpena egin zuen Kultur Etxean.



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Urdaneta, 7 behea  
Tel:72 37 09  
20700 ZUMARRAGA



Plazaola,1  
Tel:73 16 42  
20230 LEGAZPI

INGELES ● FRANTSES ● ALEMANA ● EUSKARA



-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

Zerbait afaltzen ospatu nahi baduzu

**SASIETA  
JATETXEA**

EGUNEKO MENUAK | ASTEBURUKO MENUAK

Legazpi, 5 ZUMARRAGA


72 29 16



Begoña Sagastizabal

© 72 51 90 - 72 06 76


Iparragirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA



### Iparragireren ezkontza akta Urretxun

Hilaren 21ean, Inaxio Oliverik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, **Iparragirre** ezkontu zeneko akta eman zion Urretxuko alkateari.

Dokumentua peronistek Argentinan erre zuten eliz batetan topatu zuten Rivas izeneko ikerlariak. Iparragireren oinordekoa izan daitekeen ikerlariaren lagun batek, gorde du erdi erreta dagoen dokumentua urteetan. Pello Gonzezelek, Urretxuko udala eta diputazioa, Iparragireri buruzko museoa egitea aztertzen ari direla adierazi zuen eta egitasmoa lortuko balitz, dokumentua bertan egongo litzake ikusgai.



*Gonzeze*

### Zabaletarren etxea botatzeko lanak hasi dira

Hilaren bukaeran, Urretxuko aldapan dagoen Zabaletarren etxea botatzeko lanak hasi dira. Etxearen egitura mantendu nahi denez, kontu handiarekin egin beharreko lanak dira. Eraikuntzaren barne aldean dihardute langileak lanean orain. Etxea bota ondoren etxe berriak eraikiko dira bertan.



**A**

Secundino Esnaola, 5  
 ☎ 72 42 07  
 ZUMARRAGA

deportes  
**APALATEGUI**

Zabaleta, 3  
 ☎ 28 77 87  
 DONOSTIA

**BIONA**

**AROTEGIA**

Altzariak neurri  
 ☎ eta Faxe: 72 02 55  
 Erratzu, z/g 20700 URRETXU

# Amaiak eta Liernik Urruzuno saria jaso dute

10 eguneko bidaia egin dute European zehar

**Eusko Jaurlaritzak ikasketa ertainetako ikasle euskaldunentzat antolatzen duen Urruzuno saria irabazi dute Amaia Artolazabalek eta Lierni Asurabarrenak. Amaiak 15 urte ditu eta Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako ipuin eta**

**bertso paper lehiaketaz gain, Gipuzkoako bertso paper lehiaketako lehen saria jaso zuen iaz. Liernik 17 urte ditu eta orain arte ez du lehiaketetan parte hartu. Urruzulo saria irabaztekin idazten jarraitzeko gogoia eta animoa eman die bi gazte hauei.**

## Zer da Urruzuno saria?

Amaia: Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko ikasketa ertainetako ikasle euskaldunentzat antolatzen duen poesia eta prosa mailako lehiaketa da. Guztira 600 bat lagunek hartu dugu parte bertan, 20 sari eman dira eta guk poesia mailan irabazi dugu.

## Zein sari eman dizuete?

Lierni: Oroigarri bat, gure gastuetarako dirua, lan irabazleekin argitaratutako liburua eta 10 eguneko bidaia European zehar.

## Zein herrialde ezagutu duzue bidaian eta zer moduz ibili zarete?

Oso ondo ibili gara, Frantzia, Suitza, Alemania eta Austria izan gara Euskal Herriko herri desberdinetako 20 lagun. Herrialde asko ezagutzeaz gain, oso lagun onak egin ditugu. Giro ezin hobea izan dugu bidaian.

## Gai jakin baten gainean idatzi duzue edo gaia librea zen?

Lierni: Poesiak lerro jakin bat izan behar zuen, baina gaia librea zen. Nik aitona heriotzari buruz idatzi nuen.

Amaia: Nire poemak ez zuen gai zehatzik, gauza asko nahastu nituen. *Beltza ez delako hain beltz eta zuria ez delako hain zuri* izenburua jarri nion eta ezingo nuke zehaztu zertaz idatzi nuen.

## Zer sentitzen da horrenbeste jendek parte hartu duen lehiaketako sariduna izatean?

Lierni: Ondo idazten duen jende asko dago, baina alferkeriagatik ez da idaztera animatzen. Orokorrean ez zaio idazteari garrantziarik ematen. Nik



## Ikastetxeetan irakastena al da prosa eta poesia idazten?

Lierni: Guk ez dugu poesiarik landu, erderaz gutxi eta euskaraz inoiz ez. Ez dut uste irakaste-rik dagoenik, idazteko modu asko daudelako, ez dago araurik.

Amaia: Ez dago araurik, baina guk gainontzeko lan irabazleak irakurtzean ezagutu ditugu idazteko dauden modu ezberdinak, (ingelesezko hitzak tartekatu

euskarazko poesian...,) modu hauek ez ditugu eskolan sekula ikusi eta oso baliagarria izan daiteke ezagutzea.

## Nondik datorkizue idazteko inspirazioa?

Lierni: Orain arte ez dut idatzi. Hau da poesia idatzi dudana lehen aldia. Idazten jartzea da kontua.

Amaia: Nik uste dut idazten jartzen zarela inspirazioa daukazulako eta ez alderantziz.

## Idazten hasi orduko sariak irabazi dituzue, zein asmo duzue orain?

Amaia: Irabazi izanak asko animatzen zaitu. Orain poesia gehiago idazten dut prosa baino.

Lierni: Beste lehiaketa batzuetan parte hartzeraz animatzen zaitu irabazteak. Nik behintzat lehiaketa desberdinetara aurkezteko asmoa dut momentuz.

## Zein poeta duzue gustuko?

Amaia: Ni orain zaletu naiz poesiara, eta Joseba Sarrionaindia poesiak irakurtzen ditut.

## ✓ Idaztera animatuko genuke jendea

hauek guztiak idaztera animatuko nitzuke.

Amaia: Hiru urte jarraian Urruzulo saria irabazi duenik ere bada, hauen aldean zer egiterik ez duzula uste duzu. Hala ere, ilusio handia egiten du lan pilo baten artean norberarena aukeratua izateak.

## Nondik datorkizue idazteko zaletasuna?

Amaia: Ez dut uste idazteko zaletasunik dudunik. Ez daukat beti idazten egoteko beharrik. Idazteko gogoia dudana momentuak izaten dira. Zerbait irakurri eta gustatu bazait, antzeko zerbait idazten saiatzen naiz. Lizeoan esanda aurkeztu nintzen sarira, ez zaletasuna dudalako.

## Jose Luis Ugarte: "Aintzinako bizimodua ezagutzeko datu asko eskaintzen ditu toponimiak"

### Urretxu eta Zumarragako 2693 toponimo bildu eta 1689 kokatu ditu

**J**ose Luis Ugarte legazpiarrak, "Zumarraga-Urretxuko toponimia ikerketa lana" aurkeztu berri dio Zintzo-Mintzori, bekaren antolatzaileari. Ugarte modu honetako lanetan aditua da, Legazpiko toponimia eta bertako aintzinako kontuak biltzeari duela 10 urte inguru ekin baitzion. Honetaz gain, Mutilloa, Gabiria, Zegama eta Zeraingo baserri gehienetan ibili da informazio bila eta bertako toki izenen zerrenda luzea osatu du. Zintzo-Mintzoren beka jaso zuenetik Urretxu eta Zumarragako toki izenak biltzen aritu da. Bi herrietako baserri guztietan izan da eta guztira, 2.693 toponimo jaso ditu. Filologoa izanik, hizkera desberdinak ezagutzeko interesa du eta herri bakoitzeko berezko hizkera antzemateko toponimia iturririk onenetakoa dela uste du. Aintzinako bizimodua eta bertako hizkera ezagutzeko ere balio izan dio lan honek, eta aldi berean Urretxu eta Zumarragaz zuen iritzia aldatzeko izan zaio baliagarria.



✓ Udal artxibategiak, protokolo artxibategiak, elizbarrutiko artxibategiak, baserrietako eskriturak eta baserriarrek in izandako elkarrizketak izan dira bere informazio iturriak.

#### Zein da egin duzun lana?

Garai bateko toponimiak berreskuratzea bate-tik, eta bestetik hauek, herriko planotan kokatzea izan da burutu ditudan lanak. Toponimien azentua, doinua jaso dut, azentuak ebaketarik egon den adierazten duelako eta honek bere jatorriaren berri gehiago ematen duelako. Aintzinako bizimodua ezagutzeko oso iturri garrantzitsuak dira toponimoak.

Hauek interpretatzen jakinez gero, aintzinako bizimoduari buruzko datu asko jaso daitezke.

#### Zenbat toponimo topatu dituzu?

Guztira 2.693 toponimo bildu ditut. Urretxun 1.009 eta Zumarragan berriz, 1.684. Hauetatik 1.689 plano edo mapetan kokatu ditut, Urretxun 616 eta Zumarragan 1.073. Batetik, oraindik ere erabiltzen direlako eta bestetik,

agiritan ondo zehaztuta azaltzen direlako kokatu ahal izan ditut toponimoak. Mendi eta hiri barruko toponimoak bildu badituz ere, hiri barruko toponimoak ez ditut kokatu. Hiri toponimia etxeen izenak izaten baitira gehienetan eta hauek kokatzeko eskala txikiagoko beste plano bat beharko nuke-lako. Lana oraindik handiagoa izan beharko luke gainera. Honetaz gain, zenbait mendi toponimo ere, ez dut kokatzerik izan,

dagoeneko izen hauek galdua daudelako.

#### Badaude beraz, garai batean erabili arren egun galdua dauden toponimoak

Badira bai, galdua dauden toponimoak. Adibidez, **Mugitegi** esaten zaion industrialdeari agiri zaharretan beti *munitegi* eta zaharragoa den *minutegi* esaten zitzaion. Izen hau industrialdeari eman ezean galduzat eman zitekeen

**Keros**  
Enmarkatze  
arte ederrak  
dekorazioa  
opariak

Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

**Mutua General de Seguros**


Iparragirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETXU

☎ 72 25 99

**EDURNE**

*Punta puntako moda*  
*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA



✓ Aintzinako bizimodua eta hizkerari buruz bada oraindik zer ikertzerik Urretxu eta Zumarragan

bertako baserritarrek ez baitzioten parajeari honela deitzen.

**Toponimoen esanahia bere horretan ulertzen al dugu orain?**

Toponimo askoren esanahia nahastea ere gerta daiteke. Esaterako Zumarragan **Beatza** izeneko parajea dago. Errazena izen hau meatzatik datorrela pentsatzea bada ere ez du horrekin zer ikusirik. Zelaia esan nahi du, garai batean zelaiari beraza deitzen zitzaioelako.

**Ze iturri erabili dituzu ikerketa lana burutzeko?**

Urretxu, Zumarraga, Legazpi eta Ezkioko udal artxibategiak, Oñatiko protokolo artxibategia eta Iruñea eta Donostiako Elizbarrutiko artxibategie-

tako dokumentuak miatzeaz gain, Urretxu eta Zumarragako baserri guztietako jendearekin hitz egin dut. Urretxun 41 baserritarrekin eta Zumarragan 73rekin izan naiz. Zenbaitetan gainera, ingurua ezagutzeko asmoz, mendian ibili naiz baserritarrekin batera.

**Zer moduzko harrera izan dute informante hauek?**

Harrera oso ona izan da, oso gustura erakutsi dizkirate izenak eta lehengo ohiturak. Nik ahal izanez gero, informante zaharretara jo dut, informazio gehien gordetzen dutelako, izen gehiago ezagutzen dituztelako eta garai bateko bizimoduaren berri ere badakitelako. Toponimiaz gain, Urretxu eta Zumarragako baserrietan garai

"Toponimiak erreskatatzea izan da lanaren helburua. Herriko hizkera eta hizkuntza ezagutzeko iturria baitira"

"Hiri barruko toponimoak bildu baditut ere ez ditut planotan kokatu. Batez ere mendi toponimoak aztertu ditut"

bateko informazio oso aberatsa dagoela konturatu naiz.

**Aintzinako bizimoduari buruzko informazio hori ere jaso duzu?**

Bai toponimoak biltzeaz gain, ahalegindu naiz beste ikerketetarako datuak biltzen. Ohiturak, auzoen hedapenak, auzolanak. Informazio hu guztia egunen batean beste ikerketaren bat egiteko jaso dut. Argazki zaharrak ere jaso ditut. Ahal izan dudana dena biltzen ahalegindu naiz.

**Zein da lan honen helburua?**

Helburua ahalik eta toponimo gehien erreskatatzea da. Iruditzen zait, bai euskararen aldetik eta baita herriko historia ezagu-

tzeko ere altxorra dela hau. Toponimoek esan bezala, garai bateko bizimodua ezagutzeko aukera ematen dute interpretatzen jakinez gero.

**Interpretazio lanak egiten ez dakigunontzat zer eskaintzen du lanak?**

Lanarekin Urretxu eta Zumarragako baserri gehien azken lau edo bost mendeetako historia eta beraien kokapena ezagutu daiteke. Ikerketa egin eta lortutako ondorioetara heltzeko zertan oinarritu naizen ere adierazi dut egunen batean norbaitek gai honi heldu nahi badio.

**Urretxu eta Zumarragak harritu zaituztela aipatu duzu, zerk harritu zaitu?**


Orain arte erdaldunez

**ARTYRO**  
 Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulaneetarako behar duzun **guztia**.  
 Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 14 20 URRETXU

**ALGAR**  
 Estetika zentroa  
 Depilazioa, masaiak, azal garbiketa  
 Ipeñarrieta 1-1.ezk. URRETXU ☎ 72 02 46

**Kahunas**  
 O'NEILL-ASTORE-LIBERTO-H.W.-LIBERO  
 Udazken eta neguko modarik onena  
 Nekolalde, 5 URRETXU ☎ 72 56 89





✓ Baserri, etxebizitza, jauregi, errota, burdinola, erreka, alberga, mendi tontor, baso, zabalguno, paraje, ermita, txabola, kale, errepide, lurtsail... izenak jaso eta mapan kokatu ditu Jose Luis Ugartek.

✓ Ondorengo datuak bildu ditu Ugartek jstotako 2693 toponimoekin:

Top-norm: **Otamotz**

SGK-Kontz: **50501/Parajea**

Herri-eb: **Otamótz**

**Ignacio Izagirre**

(Ipenarrietatorrea baserria), 1995

Sin: **Gerrasailak**

Kok-Kar: **88-29**

**ARGIBIDEAK:**

Top-norm: Toponimo normalizatua

SGK-Kontz: Sailkapen geografikorako kodea eta kontzeptua

Herri-eb: Herri ebakera, transkribapen fonologikoa eginez

SIN: Sinonimoak

Kok-Kar: Kokapen kartografikoa

beteriko bi herri industrial zirela pentsatzen nuen. Ez nuen beste alderdia ezagutzen eta konturatu naiz badela eta gainera bere nortasun propioa duela, herriarekin zer ikusirik ez duela konturatu naiz eta gustatu zait.

**Hizkera ere zertxobait ikertu duzula esan duzu, zer duzu bertako hizkera-ri buruz esateko?**

Hemen ez dira muga

**"Orain ezagutu dut Urretxu eta Zumarragako baserri giroa eta asko gustatu zait"**

**"Urretxu eta Zumarragako baserri guztietan ibili naiz datuak biltzen. 114 informanteekin egon naiz guztira"**

geografikoa eta hizkeraren mugak betetzen. Zumarragako Elgarresta auzoak badirudi Goierni alderako joera duela, Soraitz inguruak, Ezkio aldeko joera duela dirudi, gainontzean, Azkoiti, Azpeiti aldeko joera dagoela esango nuke, baina sakonago ikertu beharko nuke behar bezala zehazteko.

Transizio toki bat da eta alternantzia asko dago hizkeran eta toponimian,

kontzeptu bera adierazteko bi edo esapide gehiago daude.

**Lana bukatuta al dago?**

Lana ez dago bukatuta. Bukatutzat eman eta gero bertako baserriar batekin egon nintzen eta informazio berri gehiago eman zidan. Beti dago informazio berria jasotzeko aukera. Maila pertsonalean guztia jasotzen jarraituko dut.

**ELIZ - KALE**

**AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

**MASTER** - Hezkor

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA

LIBURUDEINDA

**GANBARA**

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45  
20700 URRETXU

# AGUIFES

## Gaixo psikikoak aurrera aterako dituen elkarte indartsua lortu nahi dugu

**AGUIFES** Gipuzkoako gaixo psikiko eta beraien familia eta orokorki gizartearen osasun mentala eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duen giza taldea da.

Duela 10 urte Donostian sortutako elkarte da. Eritasun psikikoak zituztenen senitartekoak izan ziren sortzaile nagusiak eta, psikologo, psikiatra, mediku edota gaixo psikiko-ohien laguntza izan zuten hasieratik. Duela hiru urte arte, hau da, Urola Garaiko **AGUIFES** taldea martxan hasi arte, Donostiakoa zen probintziako talde bakarra, orain bi talde hauek ari dira lanean, biak ere elkarlanean -Urola Garaiko AGUIFES eko bi kide, probintziako batzordekideak dira - eta estatuko gainontzeko taldeekin ere harreman onak dituzte.

Urola Garaiko taldea maiatzaz gero Zumarragako plazan, jubilatuen etxeko azken pisuan, udalak utzitako lokalean biltzen da. Guztira 30 lagun inguru biltzen dira bertan. Oso gogor ari da lanean, Donostiako beren lagunak ere harrituta daude taldeak hartu duen martxarekin, baina hala ere, epe laburrean eta luzarora begira ere, lortu beharreko helburu garrantzitsuek dituzte.

### Hemengo egoera eta dituzten helburuak

Zumarragan dagoen Adimen Osasuneko Zentroan tratatzen dira inguruko gaixoak, gaixoa oso ondo atenditua dagoela esan digute, gustura daudela bertan jasotako tratuarekin. Zentroan, bi psikiatra, psikologoa, ATS bat, administratibo



Argazkia:KAIXO

✓ Bittoriano Arrazola eta Rufino Portilla, Urola Garaiko AGUIFES elkarteko legezpiarrak, eta probintzia mailako batzordekideak

bat, gizarte laguntzaile bat eta asteen hiru egunetan, eta egun bakoitzean bi ordu egoten den monitore bat ari dira lanean. Senitartekoen esanetan, monitorea egunero zortzi orduz egotea ezinbestekoa da eta hauxe da lortu nahi duten helburuetako bat. Izan ere, oso lagungarria zaie, okupazioren bat, lotura bat izatea.

Eskuartearen duten erronkarik nagusiaren beraz, aisialdian eta denbora librean gaixoak bilduko diren eta aisialdirako ekintzak antolatuko dituen kluba martxan

jartzea da. Gaixoek aisialdia behar bezala pasatzeko erabat beharrezkoa dutelako okupazioren bat, gainontzean etxetik irteteko gogorik gabe egoten baitira. Hau lortu ondoren, lanean aritzeko tailerrak edota etxetik kanpora bizitzeko pisuak antolatzea da egin beharrezkoa, baina epe luzerako lanak omen dira hauek.

Senitartekoek behin eta berriz goraitatu dute, Eva Romero, Zumarragako Adimen Osasuneko gizarte laguntzailea, "ikaragarriko laguntza eskaini digu, berak bide-

**"Gaixoak aisialdian eta denbora librean okupazioren bat izatea erabat beharrezkoa da"**

ratu gaitu lanean, berak animatuta eta zuzenduta hasi gara lokalarekin martxan." Baina profesionalaz gain, gaixoei lanean jarduteko bolondres askok eskaini dute beraien laguntza. Psikiatraz, psikologoak edota buztina lantzen erakusteko prest dagoen jendea ere inguratu omen da hauen artean.

**Arazo nagusia**

Arazorik larriena, gaixoak gaixotasuna onartzen ez duela izaten da. Gaixotzerako lagunekin eta ingurukoekin izandako harremana galduta izten du, bere baitan zentratzen da eta ez du etxekoa ez den inorekin egon nahi. Gizarteak ez omen daki gaixo hauek tratatzen eta etxekoentzat ere oso zaila izaten da zenbaitetan. Gaixoak berak erakusten du zein jarrera izan behar den berarekin, egunero harremanean ikasten da eman beharreko tratua, hala ere, btzuetan egun batetik bestera ordurarte izandako jarrera aldatu beharra dago gaixoarengan eraginik ez duelako eta berriro ere hasieratik hasi behar da. Gaixo hauek oso azkarrak dira eta beraien egoeraz ere askotan aprobetxatu egiten dira.

Gaisotasunari buruz O.M.S. ren datuen arabera, gizartearen %4ak osasun mental arazo larriak jasaten ditu, eta hauetako %1 eskizofrenikoak dira. Populazioaren %25ak, berriz, eritasun psikikoren bat jasaten du bizitzaren uneren batean.


**Rogelio Botanz eta Gari, Legazpin**

**AGUIFES** elkarteak, dituen egitasmoei aurre egin ahal izateko, hilaren 15ean Javier Arrillaga abeslari ordiziarraren kontzertua antolatatu zuen Pagoeta Antzokian.

Honetaz gain, urtarilerako oso kontzertu ona prestatu dute. Izan ere, urtarrilaren 2an, **Rogelio Botanz** kantautore kanariarrak eta **Garik**, Euskadi mailan horren ezaguna den abeslari legazpiarak, Legazpiko Latxartegi aretoan abestuko dute Urola Garaiko **AGUIFES** taldeari laguntzeko.



✓ Zumarragako Adimen Osasuneko Zentroa



Osasun mental zerbitzuen kalitatea hobetzeko **AGUIFESek** eskatzen duena:

**HIRITARREI**

- Gaixoez eta hauen arazoez informa daitezela.
- Ez dezatela gaixoa baztertu, bizitzaren ikuspegi desberdina izateagatik.
- Edonork jasan dezake buruko gaixotasuna.

**AGINTARIEI**


- Osasun Mental Zerbitzuen beharretara egokitzea aurrekontuak.
- Osasunaren Lege Orokorreko artikulok betetzea, Estatu Espainiar osoan, etxebizitza, lana eta pentsio duina banatuko luketenak.
- Etxeko Larrialdietarako Zerbitzuak.

**FAMILIEI**

- Ezkuta ez daitezela.
- Elkar daitezela gaixoen egoera eta beraien ingurua hobetzeko.

**GAIXOEI**

- Berrabilztean saia daitezela gizartearen beraietikiko aldaketa lortzeko.



**TXINDOKI**  
TABERNA

**Txopitoetan berezitasuna**

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA

ITURGINTZA



**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxes: 72 54 59

**KORTABERRIA**


TABERNA

Pintxoak, Bokatak, Afariak

Kalebarren 26an gaude  
ZUMARRAGA Tfnoa: 72 04 67

*TELES*

## Zer deritzozu kinto eskean ibiltzeari?



**Nekane Atorrasagasti**

Tradizio bat denez, ondo deritzot kinto eskean ibiltzeari. Dena den, gaur egun denok dakigu ondo pasatzeko egiten dela, azken finean jai giroan ibiltzeko aitzaki bat da.



**Manuel Rodriguez**

Ondo iruditzen zait. Arazoa zenbaitzuk egun horretan gehiegi edaten dutela da. Niri soldadutza joatea ez zait gaizki iruditzen, baliagarria dela iruditzen zait, arazo haundiena zure bizitzako urte bat galtzea da.



**Carlos, Sara, Jose Antonio**

Nahikoa arraroa iruditzen zaigu. Kinto eskean aritzen direnen artean erdia edo gehiago insumisoak izatea.




**Ana Mari Balerdi**

Gaurko kintoak ezin dira aintzinako kintoekin konparatu. Nire ustez gehiengoa insumisoa bada ez du zentzurik kinto eskean aritzeak.

*Hots dogs*

## Nacho Mediavilla



Kontzertua eskaini zuen Floridan hilaren bukaeran eta bertaratuta-ko jendetza erabat harritu zen Nachori abesten eta kitarra jotzen, Silvio Rodriguezen antzera, horren ondo entzun eta gero.

Goiko Kaleko kamarero honek, meritu handia du, kitarra jotzen bere kasa, inoren laguntzarik gabe ikasi baitu. Umetan kendu zion anaiari kitarra, eta geroz eta dedikazio gehiago eskaini dio ondo jotzen ikasteari. "Piskanaka hasi nintzen, hasieran egunean ordu bete jotzen nuen, gero bi, beranduago hiru..."

Berak konposatuak dira gainera, bi ordu luze iraun zuen kontzertuko abesti gehienak. Konposaketa lana gauzez egiten du, orduan inspiratzen baita, "inspiratzen naizenean noski". Musika ere berak moldatzen du eta musika ikasketak ez izateak penatzen du, asmatutako doinuak grabatu ezean, hurrengo egunerako ahaztuta izaten baititu. Hala ere musika ikasten hasteko beranduegi dela pentsatzen du.

Lehenago bi kontzertu eskaini ditu herrian eta bietan jende asko inguratu da Nacho entzutera. Nachok hemendik kanpo jotzeko gogoia du orduan jakingo baitu benetan bere musika eta kantatzeko modua jendearen gustukoa den.

Baina kontzertuetan jotzea baino kalean kitarrarekin eta kantuan aritzea duela nahiago azaldu du behin eta berriz. Urretxuko jaietan kitarra jotzen aritu omen zen astelehen gauean, eta kalean, lagunartean sortu zuen giroa da benetan berari gustatzen zaiona.



*Lanbasa*

- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

## TEJANO

Azken moda berria

Eguberri on!

Ipeñarrieta 4


URRETXU



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA



✓ Asier Aranburu, denborarik onena egin zuen herritarra

**37 urretxuar eta zumarragarrek hartu zuten parte Behobia-Donostia lasterketan. Herritarren artean, onena, Asier Aranburu zumarragarra izan zen, (1:15:57), sailkapen orokorrean 288. postuan iritsi zen helmugara. Bi emakume ere aritu ziren korrika egiten.**

# Behobia-Donostia

## Asier Aranburu: "Denbora ona egitera joan nintzen lasterketara"

**Zenbat denbora behar izan duzu Behobia-Donostia prestatzeko?**

Iraila bukaeran hasi nintzen lasterketa honetarako prestatzen, hala ere uda baino lehen ere korrikan aritzen nintzen eta beraz, sasoiaren nengoen. Astearen bost egunetan entrenatzen dut, ordu bete egunean, eta 15 kilometro egiten ditut orduko.

**Pentsatzen al zenuen horren denbora ona egitea?**

1:17:00, 1:16:00, inguruan ibiltzea pentsatzen nuen baina azkenean, 1:15:57ko denbora egin nuen. Oso gustura nago lortutako emaitzarekin

**Zein helbururekin joan zinen lasterketara?**

Nire helburua denbora ona egitea zen, ez nintzen partehartzeagatik bakarrik joan.

**Zer moduzkoa da Behobia-Donostia lasterketa?**

Gustukoa dut lasterketa hau. Gogorra da baina partaidetza handia izateak eta ikusle asko izateak, lasterketa bukatzera animatzen zaitu. Antolaketa, berriz, oso ona izaten da, horrenbeste korrikalarik parte hartzen duen lasterketa antolatzea zaila bada ere, Fortuna taldekoek oso lan ona egiten dute.

**Beste probaren batean ibili al zara inoiz?**

Logroñon eta Ataunen izan nintzen, 18 kilometro egiteko 1:03:00 behar izan nuen. Behobia-Donostia baino gehiago gustatu zitzaidan Ataungoan.

**Zein asmo duzu orain?**

Otsaila aldean Idiazabal lasterketa bat izaten da eta horretarako prestatuko naiz.

## Urretxuarren eta Zumarragarren sailkapena Iturria:Fortuna Elkarte

288	Asier Aranburu	1:15:57	Zumarraga	3722	Luis Mari Torres	1:37:08	Urretxu
305	Roberto Larraza	1:16:20	Urretxu	4610	Jon Ugarte	1:40:42	Zumarraga
412	Jesus Lizarraga	1:17:51	Urretxu	4623	Nicolas Vergara	1:40:46	Urretxu
496	Jose Manuel Benitez	1:18:56	Zumarraga	4734	Ane Urmeneta	1:41:11	Urretxu
547	Juan Fco. Gomez	1:19:18	Urretxu	5037	Mikel Telleria	1:42:31	Zumarraga
645	Karlos Mujika	1:20:05	Zumarraga	5270	Joxe Lizarralde	1:43:27	Zumarraga
655	Peio Plazaola	1:20:08	Zumarraga	6312	Juan Mari Aldano	1:48:15	Urretxu
773	Javier Elgarresta	1:21:17	Urretxu	6331	Jose Mari Irure	1:48:18	Zumarraga
1194	Esteban Agirrezabal	1:24:30	Urretxu	6366	Anes Urbegain	1:48:24	Urretxu
1385	Iñaki Muga	1:25:49	Zumarraga	6538	Xabier Zufiaur	1:49:14	Zumarraga
1597	Xabier Ibarzabal	1:27:05	Zumarraga	6709	Fernando Mendia	1:50:07	Zumarraga
1604	Aitor Lizarazu	1:27:11	Zumarraga	6810	Mikel Etxaniz	1:50:35	Urretxu
1889	Jon Ander Corea	1:28:34	Zumarraga	7050	Jose Antonio Calvo	1:51:54	Urretxu
2087	Iñaki Alustiza	1:29:28	Zumarraga	7398	Julio Pascual	1:54:05	Urretxu
2782	Iñaki Urkiola	1:33:09	Urretxu	7981	Jon Agirrezabal	1:58:08	Urretxu
2851	Aitor Agirrezabal	1:33:28	Urretxu	8219	Elizabeth Lasa	2:00:13	Urretxu
3029	Miguel Cristobal	1:34:18	Urretxu	8222	Luis Fernandez	2:00:15	Urretxu
3034	Iñigo Agirre	1:34:19	Zumarraga	8324	Jose Antonio Sanchez	2:01:40	Zumarraga
3704	Roberto Corera	1:37:05	Zumarraga				

# Iparragirre sariak

Aurten ere, eta bigarren aldiz, Euskal Irrati Telebistak, **Iparragirre sariak** antolatu ditu. Sariak honek, EITBko langile eta programa onenak, eta kulturari, kirolean edota gizarte mailan nabarmendutako euskal herritarrak saritzea du helburu.

Euskal Irrati Telebistako ikus-entzulegoak postaz emandako botoen arabera aukeratu dira irabazleak. EITBri dagokionez, irratietako eta ETB-1 zein ETB-2ko programarik eta aurkezlerik onenak, eta informatiboetako aurkezlerik eta programarik onenak izango dira sarituak.

Arduradunek, arrazoi ugari izan omen zituzten sariketari **Iparragirre** izena jartzeko. Lehenik eta behin, 1995. urtean, Jose Mari Iparragirreren jaiotzaren 175. urteurrena bete zela hartu zuten kontuan. Honetaz gain, Iparragirrek euskaldun unibertsalaren irudia oso ederki islatu izanak, eta batez ere, EITBren helburua, hau da komunikatzea, horren ederki lortu zuen abeslaria izateak bultzatu zituen antolatzaileak Iparragirreren izena aukeratzera.

Sariketa martxan dago, ikus-entzulegoak botoa eman dezake dagoeneko, abenduaren erdi aldean boto guztiak jaso, zenbatu eta gabonak inguruan emango dira ezagutzera irabazleak.

## LEHIAKETAK

✓ Gabonetako VIII. idazlan lehiaketa eta VIII. krisma lehiaketa. Urretxu eta Zumarragan ikasten duten eskolaumeentzat. Lanak Kultur Etxean eta Zumarragako udaletxeko Kultura Sailean aurkeztu beharko dira **abenduaren 17a baino lehen**.

**Abenduaren 27an**, Pagoeta antzokian jakin araziko da epaimahaiaren erabakia. Arratsaldeko 5etan egingo den sari banaketa ekitaldian **KASKAZURI** eta **TXILIPURDI**ren saioa eta **MAGIA** saioa izango da.

✓ **Abenduaren 20an** arratsaldeko 7:30etan, XII. Bertso paper lehiaketa, XII. Narratiba lehiaketa, IV. Poesia lehiaketa eta VIII. Komiki lehiaketaren **sari banaketa** egingo da Urretxuko udaletxeko areto nagusian. Aurtengo edizioan argitaratutako **liburuaren aurkezpena** ere egingo da.

✓ **KOMIKI ERAKUSKETA:** Abenduaren 20tik 29ra bitartean, **Komiki lehiaketara aurkeztutako lanak** ikusgai egongo dira Itarte Etxean.

✓ Urretxuko komertzio, hosteleritza eta zerbitzuei zuzendutako **ESKAPARATE LAHIAKETA**. Izen ematea abenduaren 11an eguerdiko 12tan amaituko da eta Kultur Etxean egin behar da.

## MUSIKA

✓ **Abenduaren 6an**, SOUL kontzertua izango da Pagoeta Antzokian.

✓ **Abenduaren 20an**, **Musika ikastetxearen kontzertua** izango da Pagoeta Antzokian, arratsaldeko 7:30etan.

✓ **Abenduaren 22an**, **Zumarragako musika bandaren kontzertua**.

✓ **Abenduaren 25ean** Zumarragako mertzedarrietan elizan, **Goiargi abesbatza eta Kimets Goiargi** abesbatzen gabonetako kontzertua arratsaldeko 7:30etan

✓ **Abenduaren 29an** Zumarragako mertzedarrietan elizan, **Goiargi txiki Kimets Goiargi** eta **Goiargi** abesbatzen kontzertua arratsaldeko 7:30etan

## HITS & FITS

✓ **Abenduaren 5ean**, Itziar Zubizarretaren hitzaldia izango da. Gaia, ipuin kontaketa helduentzat. **Abenduaren 20an**, **Pablo Antoñana** idazle nafarrak, bere obra eta bizitzari buruzko hitzaldia eskainiko du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23

**MAIRI**

✓ **Abenduaren 17eta 18rako gabonetako apaingarrien ikastaroa** antolatu du Mairik. Izen ematea eta informazioa Kultur Etxean.

✓ **Santo Tomas egunerako pelikula emanaldia** izango dute eta urtea agurtuko dute.

**ALDIRI K.E.**

✓ **Abenduaren 17an, Ispilu:hondakin toxikoak** izenburupean, hitzaldia antolatu du Aldiri K.E.k. **Xabier Larena** Ormaiztegi HBko zinegotzia izango da hizlaria. Hitzaldia Urretxuko Kultur Etxean, izango da, arratsaldeko 7:30etan.

**SANTA LUTZI EGUNA**

✓ **Abenduak 13: Urdaneta hiribidean** goizeko 8etan hasita, **Zaldi eta abereen feria eta lehiaketa eta nekazal tresnen feria**

● **Euskadiko enparantzan,** goizeko 9etatik eguerdirarte **errezil sagar, fruta eta barazkien lehiaketak.** Eskulanean erakusketa eta euskal jakiak salgai.

● **Zelai Aristi pilotalekuan** Goizeko 9etatik eguerdirarte **Zuhaitz landareak eta abar** salgai.

● **Beloki pilotalekuan** Goizeko 9etatik eguerdirarte **XIV. Buzkantza lehiaketa eta dastaketa.**

● **Areizaga-Kalebarren plaza** Goizeko 9etatik eguerdira, **Oilasko eta kapoi lehiaketa.** Gauean, **AKELARRE** taldearekin dantzaldia

● **Areizaga-Kalebarren plaza** Goizeko 9etatik eguerdira, **Oilasko eta kapoi lehiaketa.**

● **Zubimusu plaza** Goizeko 9etik eguerdikoko 2ak arte eta 6etatik 9etara, **ardo lehiaketa eta dastaketa, moxala erre eta dastaketa.**


● **Ederrena pilotalekua** Eguerdikoko 12:30etan **Herri kirol jaia,** 4:30etan **profesionalen arteko pilota partiduak.**

✓ **Abenduak 13, Zumarraga eta Urretxuko Santa Lutzitako Feriko IV. Argazki Rallya.** Goizeko 8:30etatik 10ak bitartean Kultur Etxera azalduz har daiteke parte rallyan.


✓ **Abenduak 14, Beloki pilotalekuan** arratsaldeko 7etan, herri desberdinetako txistularien **Txistu kontzertua. Dantzariak, abesbatzak... izango dira bertan.** Gaueko 10:30etan **Peñagarikano, Lizaso, Sarasua eta Narbarte** bertsolarien saioa.



**Mikel zure** urtebetetze egunean zure lagunekin batera ondo pasa ezazula opa dizugu. **ZORIONAK zure** bigarren urtebetetzean bihurri!!!!



**OTAMOTZ eko** jarraitzaile sutsu hau ezin ba, zoriondu gabe utzi, **ZORIONAK!!!!** eta hurrengoan mingainik ez atera guri mesedez.




**Tomas oraingo** honetan zuri, belarritik tira egin beharrean gaude, iritsi da zure urtebetetze eguna, **ZORIONAK** eta urte askotarako!!!!



**Hodei,** abenduan baduzu zer ospatu, Santa Lutzi eguna, gabonak, eta garantzitsuena, zure hamargaren urtebetetze eguna. **ZORIONAK!!!**

**ALDCKI**



Kolorezko inprimagailu zerbitzua (720pp)  
**IPIÑARRIETA kalea, 2, etxeazpia Tel.-faxes 724220**  
**URRRETXU**

Fotokopiak  
 Enkuadernazioak  
 Plano erreproduzioak  
 Laser koloreko fotokopiak  
 Fax zerbitzua  
 Kamiseten inprimiketa  
 Plastifikazioak



**BAPRI**

Animalidenda

**Txoriak, arrainak, katuak, dordokak**  
 Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

# AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere, Laguntzarako Telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarragoa izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko



Kalebarren, 1. Tel: 72 50  
22 ZUMARRAGA

  
**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK